

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Akelino Elosua Zubimendi

*Zumaia,
Gipuzkoa
(1913-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Zumaian jaio zen, San Jose kalean, "Porteneko" etxean. Gaztea zela, etxean ganadua eta txerriak hazten zituzten; baratze txiki bat ere bazuten. Mekanikoa izan da lanbidez hainbat lantegitan. Gaztea zela, Errepublika garaian, UGT sindikatuan sartu zen eta herriko errepublikazaleen artean karguak izan zituen. Gerra zela eta, 11 urte igaro zituen herritik kanpo, lehenbizi Santanderren eta Asturiasen ihesi, geroago beste bi urte Katalunian, eta beste 9 urte Frantzian. Elkarrizketa egiteko unean 95 urte zituen; hala ere, bizi eta zehatz kontatu zituen bere bizitzaren inguruko gorabeherak.

Zintak

ZUM-054

- **Proiektua:** Zumaiaiko hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2008-04-23
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

ZUM-055

- **Proiektua:** Zumaiaiko hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2008-04-23
- **Iraupena:** 25 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Biografia; Akelino izenaren arrazoia

- **Erref:** ZUM-054/001
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

1913ko martxoaren 19an jaio zen. San Jose egunean jaioa izan arren zergatik jarri zioten Akelino izena. Berak ere bere besoetako ilobari Akelino jarri zion. Bere jaiotetxeari "Porteroko etxia" deitzen zioten, amaren Ibañaberrietako baserriagatik. Aita Narrondokoa zuen.

2. Porteroko etxea nolakoa zen

- **Erref:** ZUM-054/002
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

<p>Porterokoa etxea nolakoa zen. Bi pisu zituen eta Aramanditarrak (errezildarrak) bizi ziren eraikin berean. 1948an bera Frantziatik itzuli zenean sartu zuten ura etxean, ordura arte kaletik ekartzen zuten iturritik. Arropak garbitzeko ama arropa buru gainean hartuta albergara joaten zen. Herriko albergak non zeuden. Patxi barranderoaren inguruko kontuak. Sua sukalde erdi-erdian zuten, aita egina. Aita trebea zen edozer gauza egiten. Noiz berri zuten etxea.</p>

3. Ganadua eskaileretan gora eta behera

- **Erref:** ZUM-054/003
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Etxe azpian ganadua zuten. Ganaduari gustatu egiten omen zitzaion eta egunero eramaten zituen erreka buelta bat ematera hankak garbituaz. Ganadua eskaileretan gora eta behera ibiltzen zen kalera irteteko. Txerria ere bazuten eta amak egunero garbitzen omen zuen "estropajuarekin". Inguruko etxeetan ere denetan zegoen ganadua. Aita garraiolaria gisa ibiltzen zen lanean.

4. Soroak non zituzten

- **Erref:** ZUM-054/004
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzak eta soroa

Laburpena:

Bi sail zituzten erribera inguruan eta Jarreko mendian ere erabiltzen zuten saila ganaduarentzat. Jaietako pozik handiena aitarantz 2-3 seme artajorran laguntzera joatea izaten zen. Aitak ez zuen lan finkorik eta denetarik egiten zuen bizimodua ateratzeko.

5. Aita ofizio askokoa: kaleak egin, paretak konpondu, otarrak egin...

- **Erref:** ZUM-054/005
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Aitak ez zuen lan finkorik eta denetarik egiten zuen bizimodua ateratzeko. "Paolen" harria atera, labratu eta berak bakarrik egin omen zuen udaletxetik gorako kale osoa. Itsasoak harrizko pareta apurtzen zuenean ere bere aita eramaten zuten konpontzera. Neguan aulkiak eta otarrak egiten zituen etxean eta plazan saltzen zituen. Baserritarrak plazara etortzen ziren eta Arritokieta kalean egoten ziren asto guztiak lotuta.

6. Urbietatarrak: baserritarren astoak zaindu eta taxista lanak egin

- **Erref:** ZUM-054/006
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:12:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Inguruko baserritarrak plazara etortzen ziren saltzera. Arritokieta kalean egoten ziren asto guztiak lotuta. Urbietatarrak egoten ziren astoak zaintzen. Zaldia ere bazituzten karro eta guzti eta taxista lanetan ibiltzen ziren, jendea inguruko herrietara eramaten. Ikatzek betetako barkuak iristen zirenean garraiolari lanetan aritzen zirenek karroa kargatu eta geltokira eramaten zuten. Nortzuk aritzen ziren lan honetan.</p>

7. Zestoako bainuetxeko urak fama handia

- **Erref:** ZUM-054/007
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:12:40. **Bukatu:** 00:13:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Zestoako balnearioko urak fama handia zuen eta barkuetan kanpora saltzen zela gogoan du. Bainuetxera bertara ere etortzen zen sarri jendea bainuak hartzera.

8. Garraioa: gurdiak eta dilijentzia

- **Erref:** ZUM-054/008
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:13:40. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Gurdiarekin garraioan ibiltzen zirenak 3-4 izaten ziren. Geltokira iristen zen materiala idiekin eta gurdiarekin garraiatzen zuten. Jendea eramateko dilijentzia bat zegoen, baina bestela jendea oinez ibiltzen zen. Azpeitiraino ere joaten ziren oinez zerbait erosi edo saltzera.</p>

9. Urbietatarrek astotokiaren ardura

- **Erref:** ZUM-054/009
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Arritokieta kalean astotokia zegoen. Paretaren kontra astoak lotzeko burdin bat egoten zen. Gehiago ordaintzen zutenei ikuilu barruan gordetzen zieten astoa. Urbietatarrak ziren zaintzaileak. Plaza goizean goiz izaten zen.

10. Erriberako sailen inguruko azalpenak; antxoa ongarriztat

- **Erref:** ZUM-054/010
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:19:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

Etxe gainekaldean baratze txiki bat zuten eta Basusta inguruan zituzten sail gehiago. Baba, patata, erremolatxa, arbia... izaten zuten. Garia ere ereiten zen. Lur ona zegoen erriberan, umedade handia zegoelako. Luakiak urez goraino estalita ezagutu ditu. Ura igotzen zenean dena urpean geratzen zen eta gero denbora behar izaten zen errekupekatzen. Saltzen ez zen antxoia ongarritzat soroan botatzeko erosten zuten. Jatekoarekin ez zuten arazorik izaten, baratzean etxerako lain hartzen zuten eta, arazoa olioarekin, azukrearekin eta arroparekin izaten zuten.

11. Eguneroko jatekoa; jakiak nola kontserbatu

- **Erref:** ZUM-054/011
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:19:25. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Taltoa egiten zuten etxean eta berak eskolara eramaten zuenean jateko, denak atzetik izaten zituen. Esnea pertzan esekita izaten zuten eta nahi beste edaten zuten. Bestela eguerdian babak eta gauean porru-patatak edo bakailaoa patatekin jaten zuten. Lehen ez zegoen hozkailurik eta haragia gatzetan kontserbatzen zen. Udazkenean artoa heltzen zenean etxe osoan artaburuak izaten zituzten zintzilik. Jende asko egoten zen etxeetan eta batzuk neskame edo morroi joaten ziren.

12. 13 urtera arte mojekin eskolan

- **Erref:** ZUM-054/012
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:23:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Behiei goizean eta iluntzean batzen zieten esnea. Amak zaintzen zuen normalean ganadua eurak lanean zebiltzalako. 13 urterekin hasi zen lanean eta ordura arte mojekin ibili zen eskolan. Mojetan probintzia osoko neskak egoten ziren interna eta haiei begira hasiak zirela eta, mojek nahikoa ikasi zutela esan eta eskola utzi zuen.

13. Balenciagarenean lanean

- **Erref:** ZUM-054/013
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:23:25. **Bukatu:** 00:25:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

13 urterekin Balenciagarenean hasi zen lanean, tornuan, aprendiz gisa. Orduan lanbidea ondo ikasi beharra zegoen. Kalderak eta makinak egiten zituzten, Zumaian itsasontzi asko montatzen baitzen. Lantegia non zegoen. Gerra aurretik bera lanean hasi zenerako lantegi handia zen Balenciaga, fundizioa, kaldereria eta ajustajea dena bertan zegoen eta. 80 langile inguru izango zituen ordurako.

14. Balenciagarenetik Yeregirenera lanera

- **Erref:** ZUM-054/014
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:25:00. **Bukatu:** 00:28:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Balenciagarenean lehenbiziko "huelga" egin zueneko pasadizoa. Ez zegoen gustura eta utzi egin zuen Balenciagareneko lana. Kanean zegoela Yeregi etorri zitzaion lana eskaintzera. Tornu berria ekarri zuten eta han jarri zuten lanean. Balenciagareneko bikoitza ordaintzen zioten eta gustura aritu zen bertan lanean gerra etorri arte.

15. Egiguren lantegian aritu zeneko garaia

- **Erref:** ZUM-054/015
- **Iraupena:** 0:05:05. **Hasi:** 00:28:50. **Bukatu:** 00:33:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Gerraostean Frantziatik itzuli zenean, Yeregitarrek ondo hartu zuten eta lana eskaini zioten berriz, baina gutxi iruditu zitzaion eta ez zuen onartu. Bere emazteak garai hartan despeskan lan egiten zuen, mallako antxoak saretik libratzen. Orduan Goikoetxea etorri zitzaion Egigurenean lan eskainiz. Onartu egin zuen eta lanean hasi aurretik soldata etxera iritsi zitzaion. Egigurenek Zestoan zuen lantegia, anaiekin batera, baina kredituekin funtzionatzen zuen lantegia zen. Anaiekin banandu ostean, Julian Egigurenek Zumaian ireki zuen lantegia. Puskaka-puskaka joan zen lantegia sortzen.

16. Lau urteren ostean berriz Egigurenenera

- **Erref:** ZUM-054/016
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:33:55. **Bukatu:** 00:35:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debararreneko lantegiak

Laburpena:

Egiguren lantegiak kreditu bidez funtzionatzen zuen, baina beti kredituak itzuli ezinda ibiltzen zen. Beste lantegi batetik enkargatu gisa lanera joateko eskaintza jaso zuen eta joan egin zen. Handik lau urtera berriz deitu zion Egigurenek eta itzuli egin zen. Egunean tornu bate egitera iritsi ziren. Kanpora ere saltzen zituzten tornuak. Belgikara ferria internacionalera joan ziren eta Grezian ere lehiaketa batera aurkeztu ziren. Irabazi egin zuten. Hona etorri eta saria jasoko zutelakoan pozik zeuden, baina kolpe militarra egon zen Grezian eta sari gabe geratu ziren. Egun batean semeak tailerra montatzea proposatu zion eta hala egin zuten, Indoiki mekanizatuko lantegia sortu zuten.

17. Indoiki lantegiaren sorrera; nolako lanak egiten zituzten

- **Erref:** ZUM-054/017
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:35:55. **Bukatu:** 00:39:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debararreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Egun batean semeak tailerra montatzea proposatu zion eta hala egin zuten, Indoiki (Industrias Oikina) mekanizatuko lantegia sortu zuten. Mekanizatuko lanak egiten zituzten (itsasontzientzat); nolako lanak egiten zituzten. Oikian lehenengotako lantegia izan zen Indoiki, ordura arte soroak besterik ez zegoen. 1969an sortu zuten lantegia eta 1992 inguruan itxi zen.

18. Zumaiko sagardotegiak

- **Erref:** ZUM-054/018
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:39:05. **Bukatu:** 00:41:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Zumaian sagardotegi asko zegoen; non zeuden azaltzen du. Orduko sagardotegiak sinpleak izaten ziren. Norberak eramaten zuen jatekoa. Askotan sardinak edo antxoak eraman eta bertan erreta jaten zituzten.

19. Gazteen zaletasunak pilota eta dantza; dantza lotua galarazita

- **Erref:** ZUM-054/019
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:41:05. **Bukatu:** 00:42:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Gazteek pilotarako zaletasun handia zuten eta jai eguerdietan frontoian ilaran egoten ziren pilotan jokatzeko zain. Pilotan aritzen zirenen izenak. Euren zaletasuna dantzarakoa izan zen. Arroako kantinara joaten ziren dantzan ikastera. Errepublika aurretik elizak galarazi egiten zuen orduan dantza lotua eta eurak elizari aurre egitearren dantzara joaten ziren 17 urte ingururekin. Errepublikarekin gero aldaketa etorri zen.

20. UGTren greban pikete gisa aritzearen lau hilabete atxilotua

- **Erref:** ZUM-054/020
- **Iraupena:** 0:05:25. **Hasi:** 00:42:55. **Bukatu:** 00:48:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Errepublika garaian UGT-en sartu zen. Beste inor ez zegoen eta berak egiten zituen sindikatuko lan asko. 1934an eskuinak irabazi zuen eta UGT-k greba orokorra deitu zuen. Pikete gisa lantegiz lantegi ibili ziren. Aste osoan egon ziren lantegiak itxita. Horren ostean, lanean hasi eta segituan "Goardia de asalto"-ak joan zitzaizkion lanera bila eta atxilotu egin zuten. Donostiako Gobernu zibileko sotoan eduki zituzten lehenbizi, gero Guadalupeko fuertean eta azkenik Azpetiako kartzelan. Lau hilabeteren ostean libre utzi zituzten. Herrian ondo hartu zuten bera itzuli zenean.</p>

Transkripzioa

- Sindikatua ´re sortu gendun.
- Kontaidazu hori pixkat. Republikanua eta, nola sartu zitzaizun zuri republikan kontua ta?
- Republikan kontua, hemezortzi urte nezkan nik etorri zanian, treintaiunuan etorri zan, ta klaro, esan dizut ba, tailerreko zeak-eta, diruak-eta, ez dakit ba nik nondik noa kontajiatu in behintzat. Mitiñak eta hasi zian errepublika denpoan, ta Unión General de Trabajadores-en sartu nitxan. Klaro, sartu bakarrik ez, ez zeon iñor zero iten zekinikan, iñorrek, ta seituan zea, kontable, sekretaidxo, kargo danak!
- (Alabak) Danak.
- Danak seituan, bai. Klaro, hala, treintaicuatruan, treintaiunon zan hori ta treintaicuatruan eskubikuak irabazi zuen gaixki ibili giñalako gu, partituta jun giñan ezkerra ta eskubikuak irabazi zuen, ta orduan huelga jenerala deklaratu zan, deklaratu zun UGTk, Largo Caballerok. Ta guk Zumaian zortzi egun geatu genduzen, taillerrik tailler ibiltzen giñan piketiak. Oain lotsagabiak diala ta hau ta hura esaten ziou, ta geu ibiltzen giñan horrela! Ta kejatzen, piketiak...
- Eta pikete gogorrak?
- Aste guztidxan eon zian taillerrak geauta, geldiikan, errespeto gogorra

ziun. Indarra´re bagenduan orduan, gaztetan-ta haundidxak giñan. Larogei bat eo gehio bai sindikatuan ta, danak haundidxak gintuan. Astebete o ibili gaituk horrela, geldiihan herridxa, konsigna hori eman ziun: herridxan bertako indarrak geatzeko, iñoa ez juteko mouan, entretenitzeko ta kunplitu gendun guk hori ta. Ya Asturiasen-ta frakasatu zuenian, ba, atzea lanea. Ta lanian hasi ta egun gutxira, ba, guardia asaltuak billa lanea. Lanian Yereginian ai nitxan ni, esan dizuet lehen. Ta ofizina juteko. Ta jun naiz ofizina ta guardia asaltuak han. "Queda usted detenido. Venga usted con nosotros al ayuntamiento", ta klaro, "Déjeme cambiar la ropa", ta ezta erropa [...]. Laneko erropakin hartu ta aiuntamientoa. Ta hemeatzi Zumaian juntatu giñan aiuntamientuan!

- Detenituta.

- Detenituta. Ta batzuek txaloka ta bestiak nearrez, ta ordun´e bakizu, bazeon ba, batzuek txaloka ikusten genduzen guk ta bestiak nearrez. Ta autobusa etorri zan ta hemeatzi hartu ta Donostira, zeara, Gobierno Civileko sotanoa eraman giñun. Bai, han bi egun eo [...] ez jan ta ez ean ta ez kabitu´re in eziñikan. Ta zea detenitu zuen, [...], Donostiko teniente alcalde o izan zan, sozialista. Ta hura´re detenitu hura´re, hura´re zeauta, kunplikauta gu´re beakin, ta. "¿Cómo estáis aquí? Así no se puede estar". Kejatu zan hura gobernuai o zeai, gobernadoriai o polizidxai o kejatu zan, porke klaro, lotako´re tokiik gabe gintuan.

- Etzateko´re ez!

- Alkarren gaiñian! Ta kejatu zan hura, ta hartu ta Fuerte Guadalupea eaman giñun danok, Fuerte Guadalupen.

- Fuenterrabin.

- Hondarrabidxan. Ba al dakizu nolakua zan hura? Ez ziñaten behiñ´e izango barruan.

- Ez.

- Ba hura dao mendidxa zeauta...

- (Alaba) Janda.

- Hustu erditikan, baiña luzian. Bastante... Ez dakit zenbat zan, uan ahaztuta nao zenbat, baiña idxa ehun bat metro igual dao hura, zea haundidxa, avenida haundi bat bezela. Ta geo ixker-eskubi, beste hainbeste zea, beste hainbeste...

- (Alaba) Tunel, edo.

- Zea dabe, fuertia zan-ta. Hara eraman giñun. Ta han´e oso gaixki. Zikiña ta...

- Hotza ta.

- Bai, ba. Probintziko danak, danak hara, danak han. Oso gaixki eon giñan han´e. Karo, nahi zuen kastigu bat eman guri, baiña ez zuen billatzen zeikan. Nahi zuen, baiña ez zuen billatzen...

- (Alaba) Nola.

- Postiak bota genduzen, ba, zean, estazidxuan trena geatzeko? Ba, hori hartu zan testigu ta zeñek in zuan, ta iñorrek ez zula aittu, zeatu, ta. Han eon giñan pixkatian, hiru bat hillabete o, ta handikan Azpeitira, Azpeitiko kartzelea ekarri giñun, juizidxua iteko o prepaatzeko zeara. Orduan lehen esan deuna, oiñez han etortzen zan ama, Karlota...

- (Alaba) Andria.

- Artian ezkondu gabe giñan gu, nobidxuak, baiña han etortzen zan bixitan. Ta hara´re in gendun, ez dakit zenbat denpoa in gendun! Baiña kuestidxua ez zuela zeatu ta zeatu in zuen, "sobreseída la causa", kalian geldiu giñun. Lau hillabete ta zortzi egun in genduzen [...] zala ta ez zala!

- Kalera bai, baiña lau hillabete...

- Bai!

- (Alaba) Danok batea kalea?

- Bai, "sobreseída la causa". Ez ziun, ez ziun zeatu, ta. Bai, hori izan zan...

- Eta herrira bueltatzian, zer?
- Ez, ondo. Ni ondo hartu niñuen. Herrira bueltatzian gaiñea, gobiernuak orduan beste lege bat in zun, ya huelga in genduanak kalia lagatzeko libertadia eman zidxoan patronalak, baiña nerekin ez zian gaixki portatu Yereginuak. Seituan esan zien ez kasuik iteko, [...] juteko lanea. Klaro, falta iten nun ta! Jungo ez nitxan, ba? Lanea! Baiña geatu zian batzuek.

21. 1936ko udal hauteskundeetan bost zinegotzi errepublikazale

- **Erref:** ZUM-054/021
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:48:20. **Bukatu:** 00:49:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>Zumaian baziren errepublikazaleak. 1936ko hauteskundeetan, udalean bost zinegotzi atera zituzten. Hala ere, Zumaian gehienak abertzaleak ziren.</p>

Transkripzioa

- Eta republikanuak eta Zumaian bazian orduan?
- Bai. Neu, republikano aktibua. Trentaiseisko aiuntamientuan bost konzejal atea genduzen!
- Zenbatetik?
- Orduan uste det hamaika izaten ziala... Oan hamahiru dabe, orduan hamaika igual... Bost genduzen. Bost. Bueno, republikanuan izena, o liberalak eo orduan zea zian...
- Edo liberalak, edo, bai. Sozialista o...
- Bai.
- Ta gehiago republikanuak sozialistak baiño.
- Izena, republikanuan izenakin erten zian danak, edo erten giñun.
- Bestela Zumaian nagusi abertzaliak izango zian, ez?
- Bai, bai, beti. Nazionalistak beti, abertzaliak izan dia, bai. Bai, treintaicuatroko [...], treintaiseiseko aiuntamientuan, febrero treinta y seis, bost konzejal erten zuen.
- Republikanuak.
- Karo, kartzelan zeon jendia ta orduan atea zan zean. Orduan...
- Frente Popularra ta...
- Frente Popularra ta, orduan irabazi zan ta orduan, orduan libratu zian.

22. Mitinak; errepublikak langileen inguruko legeak sortu zituen

- **Erref:** ZUM-054/022
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:49:20. **Bukatu:** 00:52:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Errepublika garaian, mitinak ematen ziren eta bera ere hitz eginda dago udaletxeko balkoitik 18 urte zituela. Artean ez zegoen langileen legerik, eta errepublikarekin lege asko sortu ziren: zortzi orduko lan-jarduna, oporrak, "ley de términos municipales", "ley de accidentes de trabajo"... Metaleko hitzarmena egin zenean, bera ere ibili zen tarteko. Berak euskaraz ematen zituen mitinak. Noizbehinka ekartzen zuten kanpokoren bat mitina ematera. Herriko jende "ilustrea" (medikua, irakasleak...) ziklo batera gonbidatu zituzten, baina ez zuten denek onartu.

Transkripzioa

- Eta esan dezu hamen republikanetan mitiñak eta izanten ziala?
- Bai! Neuk´e euki nitun neuk´e neure mitiñak!
- Zeuk´e bai? Zeuk eman?
- Bai, primero mayon ta. [...], bai, bai, bai. Hamen, aiuntamientuko leihotikan hitz einda nao ni gaztetan.
- Eta, ze? Ze mitin klase izaten zian?
- (Alaba) Eta hori hemezortzi urtekin.
- Bai, ba. Hemezortzi urte orduan. Baiña hemezortzi, geo hogeita bat arte, zea, gerra etorri zan arte. Gerran hogeita hiru banezkan, baiña hogeita bat urtekin eon nitzan kartzelan, gaztiena ni nitxan, treintaicuatron. Kartzelan gaztiena ni nitxan.
- Eta mitiñak orduan inguruko herrixetan eta?
- Mitiñak ez zian horren sarri iten. Zeoze, zean bat zanian. Eske, orduan ez zeon legeikan bate. Esate bateako, ez zeon langille legeikan.
- Bai.
- Ta ein zian "[...] de Trabajo", zortzi orduko zea orduan jarri zan. Bakazidxuak orduan jarri zian. "Ley de Términos Municipales" horkua da. Lehenotikan nausidxak, hamen ez zan ohitura hori, baiña nausidxak herriz herri ibiltzen zian zeak, reboluzionaidxuak eo protestantienak laga, ta bestiak eamaten zituen lanea. Ta "Ley de Términos Municipales" ein zuen, ein zun republikak. Parua zeon bitartian herri batian, besteko langilleik etortzeik ez zeon. Bai. Ta "Ley de Accidentes de Trabajo" ez zeon. Zeona hil ta anai horrek ezer ez zun kobratzen. Orduan lege asko in zian!
- Republikan.
- (Alaba) Ta geo mantenitu in zituen, ez?
- Honbre, klaro. Baiña republikak lehenbiziko konbeniua sindikato metalurgikua in zanian, parte hartu nun nik, Donostira sarritan juten nitxan konbeniyua in zan arte. Egilaz ta bidxok. Herridxan ez zeon eskola zeukan mutillikan, ta nik batez, nik gutxi ta bestiak batez. [...] ezer ez, baiña... Ez zeon besteik eta!
- Eta mitiñak eta eukeraz, edo?
- Euskeraz. Nik euskeraz neuriak iten nitun ta Garcés-ek erderaz.
- Eta euskeraz eta hitz eiteko, lehen, huelga kontuak eta reboluziyua ta, holako kontuak eta euskeraz eta, nola [...]?
- Bazian, bazian, bai, orduan´e bagenduzen, bai, bagenduzen.
- Eta kanpoko jenderik eta etortzen zan mitiñak ematea?
- Ez.
- Eibarretik o...
- Aldidxan behin bai, aldidxan behin ekartzen gendun baten bat. Ta hori baiño gehidxo, hamen bertako zea gehidxo organizatu nahi izan gendun, ez gendun konsegitu, baiña. Bertako intelektualak eo zeak, meikua, maixua... danak inbitatu zituen ziklo bat eiteko konferentzidxanak eta. Ez zun danak ametitu. Diplomazi earrakin erantzunak eman zixkiun! Orduan

eskolan, zea zeon eskolan maixu, bueno!

- [...]?

- Ez, lehenotikan, txiki bat. Erdaldun pillua ekarri zuan bat. Ahaztu zat. Seme-alabak´e bazezkan hamen bizi zianak. Gizon txiki bat zan. "Mientras haya dos banderas distintas en el dintel de un ayuntamiento, no puedo participar", ta, halako zeak.

- Orduan ya.

- Meikuak berriz, Ajuriak berriz, libro bat eo eskribituta emango zigula konferentzidxan, ta "[...] libruak leetuko dixkiu!" erantzun giñan, ta horretan, hola ibiltzen giñan. Bai, hola ibiltzen giñan.

23. Gerra hasi zenean udaletxearen jabe egin ziren

- **Erref:** ZUM-054/023
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:52:55. **Bukatu:** 00:54:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Borroka handia zegoen UGT, sozialista eta beste alderdien artean; ikusten zen gerra bazetorrela. Gerra hasi zela jakin zutenean, udaletxearen jabe egin ziren eta herriko karlista guztiak atxilotu zituzten, 31 guztira. Udaletzeko goiko saloian eduki zituzten preso. Anarkistak etortzen zitzaizkien bila eta beraiek gogor hartzen zituzten.

Transkripzioa

- Ta geo, bakizu, borroka´re haundidxa zeon, [...] baiña hamen´e bai.

UGTkuak eta, sozialistak eta, falangia ta, hasi zian Madrillen ta Barzelonan ta, herri hoietan, elkar hiltzen eta. Ya enbenenatu in zan anbientia. Ikusten zanian gerra ya...

- Ikusten zan?

- Bai, bai.

- Gerra bazetorrela?

- Bai, bai. Gerra bazetorren, ikusten zan, ikusten zan. Ezin zala bizi ya ikusten zan.

- Eta etorri zan.

- Bai, sartu zan, bai, Tito.

- Eta zelan enteratu ziñan gerra sartu zala?

- Ez naiz gogoratzen nola enteratu giñan, baiña enteratu bakarrik ez.

Behalaxe jun ta aiuntamientuan jabe in giñan. Aiuntamientuan jabe gu in giñan.

- Republikanuak?

- Bai, republikanuak. Bai, bai. Nazionalistak horrela zeuden ba, ze aldeta jokatu [...] eziñik...

- Bai, dudan.

- Ta gu jarri in giñan aiuntamientuan. Bai. Garcés ta ni ta beste bat. Garcés gendukan buru. Zea bat zan, aragones bat, estadidxuan enpleatzen zana, Urolan, enpleatzen zan mutil bat, eskola dexentekin ta. Donostitikan boikota in zidxoen, ebanista zan, ta boikota in zidxoen [...] sindikatuak eta moitzen zitulako. Ta honea, [...] onduan, republikanuak [...], honea bialdu zun zeak, Urola enpleauta. Harek, haren bitartez ta harekin ondo konpontzen giñan, aiuntamientua manejatzen ta. Detenitu´re in genduzen

zea danak, karlista danak. Hamen, hamen, hamen nekan zeauta...
- (Alaba) Apuntauta.
- Bai. Ta herriko karlista danak detenitu [...] ta. Hogeita hamaika.
- Hogeita hamaika?
- Hogeita hamaika detenitu ginduzen. Ta aiuntamientoko goiko saloian eon zian preso ta zeak etortzen zian, anarkistak, billa, zeatu nahidxan. Ta haidxei frente eman ta. Gogor hartzen genduzen!

24. Herriko karlistak preso hartu zituzten udaletxean

- **Erref:** ZUM-054/025
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:55:55. **Bukatu:** 00:57:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

<p>Udaletxea hartu zuten eta herriko karlista guztiak atxilotu zituzten. Dudakoak ziren "txaperoak" (udaltzainak) eta mikeleteak desarmatu egin zituzten. Frantziatik etorri zenean, atxilotuta egon zirenetako askok eskerrak eman zizkieten ondo portatu zirelako.</p>

Transkripzioa

- Eta karlistak orduan salon de plenosen?
- Karlisten zea, hasi zian, ba, hoidxek´e ibiltzen pistolakin ta entrenamentuan-ta´re, ya jakiten gendun gu zein. [...] gendun, ta detenitu genduzen.
- Eta lista hori zeinnek in zun lista hori? Edo nundik atea zenuen?
- Geuk iten gendun. Guk eiten genduzen hauek danak.
- UGTn?
- UGTn ez, aiuntamientotikan.
- A, karo, republikanuak.
- Ta txaperuai, txapero faxistak´e bazeben. Desarmatu in genduzen! Bai, bai. Ta mikeletiak´e bai, bat baiño gehio. Ez zianak konfiantzakuak...
- Eta zenbat egunian izan ziñan...
- Hor? Ba, ez dakit, sartu zian arte. Nazionalak sartu zian arte eon zian hauek danak deteniuta hor goian. Ta Frantzitik etorri nitxanian, batek baiño gehio hauetakuak eskerrak eman zian nei ondo portatu giñalako. Bai, bai. Apeztegi ta [Pafus] ta. Hoidxek eskerrak eman zien nei, klaro, hoidxek defenditu eziñik ibili giñan, ta! Detenitu bai in genduzen, baiña gero hoidxek defenditu eziñikan, hoidxek gorde eziñikan anarkistetatik eta. Eskerrak ematen zizkien nei.
- Hildakorik eta izan zan?
- Ez!
- Zumaian?
- Ez, Zumaidxan ez. Bueno, hil zuen bat, baiña guk alde in ta gero-eo, ya ebakuazidxua in da geo-o. Paolen billatu zuen baten bat hilda. Ez, guk ez gendun iñor zeatu, iñor gaixki hartu. Kate motxetik eamaten zidxoan, ta hantxe, danak hantxe euki bakarrikan, ta bijilatu ta. Nazionalistak etorri zian, eun batzuetan eo eon zian dudan, ta ya geo, laguntzakin, bi zeak eoten zian txandan: zentinelak o guardidxa, [...] zana.

25. Zumaiko familia asko Santoñara ihesi

- **Erref:** ZUM-054/026
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 00:57:40. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Zumaiar asko joan zen boluntario batailloietara. Donostiara joaten ziren asko. Honen inguruko kontuak. Unerik gogorrena herria ebakatu behar izan zutenekoa izan omen zen berarentzat, gurasoak Zumaian geratu zirelako. Itsasontzia prestatu eta herriko jende askok alde egin zuen. Ontzigintzari esker, Santoñarekin harremana zuten eta familia asko Santoñara joan ziren. Santoñan ihes egindako aberats baten etxean egon ziren zumaiarrak.</p>

Transkripzioa

- Eta Zumaixan-eta, jendia batailloietan-eta organizatu zan edo?
- Mordua jun zan boluntadxo.
- Baiña Zumaixan bertan bazeon batailloirik?
- Zumaixan osaba bat hil zan, Fermin, hamen, zean, frentian, Bizkargin. Ta anaidxa, [...], heritu in zuen. Boluntaidxuak asko jun zian UGTtikan, gaztiak.
- Eibarrea?
- Eibarrea, Batallón UHP, Batallón... nola da? Hermanos Proletarios. Bai Eibarrea... Donostira gehidxenak. Donostitikan, bai. Donostiko zea, sublebazidxa izan zanian jende asko jun zan hamendikan han zeatzeko. Tartian osaba karabiñerua, Cabrera jun zan. Fusillikan manejatzen haretzek bakarrik jakingo zun, beste iñork ez zun jakingo!
- Eta herridxa eta, jenderik geratu zan hamen, herrixan bertan?
- Bai, bai.
- (Alaba) Andriak.
- Geo, hori geo ya, gerra sortu zanian, ba, hasi zian zeak etortzen, refujiauak, Irundikan eta Hondarrabitik eta. Horkuak lehenbizi hasi zian etortzen. Eta Amaian sartu genduzen, Hotel Amaian orduan. Garai hartan ez zeon zeikan, zeakin, gerrakin-ta. Hor sartzen genduzen. Ta geo Donostidxa´re galdu zan, denpora gutxidxa sartu zian frentia puskatu zuenian.
- Noiz sartu zian gutxi gorabehera? Gogoratzen dezu? Setienbreako?
- Setienbreako? Lehenok!
- Lehenok?
- Bai. Setienbrian ya guk hamendik ebakatu in gendun setienbrian. Ta Donostira hoidxek sartu zian, bueno, bai, setienbrian aurrealdian izango zan sartu ziala. Ta Zumaitikan jendiak alde in zun. Ta guk barko bat preparatu gendun ta geure aldekuak barkuan bialdu genduzen, andria, ama-ta, andrian ama-ta, kuadrilla bat...
- (Alaba) Arreba...
- Arreba? Arreba ez. Arreba geo...
- [...] ez zan jun?
- Geo bialdu zituen hoidxek, hoidxek hamen geatu zian, umiak txikidxak zezken, ta ez zian jun. Guk danok alde in gendun. Ta nik [...] txarrena esaten det, gerra [...] ta Frantzikua ta ikusi ditut, baiña [...] txarrena hura izan zan neretzat, hemen hau ebakatu gendunian. Klaro, gurasuak hemen geatzen zian ta aittak hemen geatu nahi zun ta amak gurekin jun nahi zun.

Ta aittak "Nola jungo gea dakaun edadiakin?" ta zea, ta "Antolauko dia umiak" eta. Haidxen zeakin alde iñ in behar izan nun nik etxetikan, despeditzeko astiik gabe. Klaro, nik zea nekan, barkuan bestiak bialdu genduzen, andria-ta, andrian ama-ta... En fin, danak, herriko asko. Ta nik zea txiki bat nekan, motor txiki bat, rekisauta, etxeberriatarrena. Zea zan, Hiberdrolako ingenierua [...] etxia zaken hor Paolen. Horrek motor txiki bat zekan orduan, motor rapido hoidxetako bat. Ta hura rekisauta nekan nik. Ta hamen azkeneko danak alde in zuenian, ni motor hartan jun nitxan. Launak, sindikatoko launak, itsasuan-ta ibiltzen zan bat, konpromisauta nekan, Erramun. Han jun nitxan ni, hauek danak bialduta, haidxen ondoren. Ta hoidxek Lekeition sartu zian lehenbizi, ta geo, tratu asko Santoñakin gendukan zumaiaarrak. Hemen barkuak eta nola iten zian, ba, gehidxenbat kuñauak, Joxe Marik zekan tratoik gehidxena. Ta Santoña danak, famili asko Santoña jun giñan. Ni geatu nitxan hor Bilbon, baiña andria ta andrien amak-eta, famili asko, Manuela arreba´re hor zan, Joxe Marin andria, famili asko Santoñan geatu zian o sartu zian refujiauta aberats baten itxian. Ihesi in zun ta itxe haundi bat zekan ta itxe hura dana okupatu zuen zumaiaarrak. Agustin-ta, Akelin-ta hauek, orduan bialdu zituenian, txikidxak eta "¿No me das un poco?" esaten zuan, ezta? Amak esaten zuan, gosiak eta danai eskian Agustin. "Me das un poco" danai eskian, gosiak zan haura.

- (Alaba) Osaba Jose Luis han jaiotakua da, ez? Osaba Jose Luis ez zan Santoñan jaio?
- Santoñan jaidxo zan. Klaro, zazpi hillabete zeon Paulita, zea, ama, hamendik alde in gendunian.
- Eta orduan, Zumaiko andra ta ume guztiak eta...
- Askok alde in gendun ta beste batzuek hamen geatu zian, ta geo bialdu in zituen, beste hauek danak atzea bialdu in zituen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com